

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1718/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko azaroaren 15ekoa, Europako ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko programa aplikatzeari buruzkoa (MEDIA 2007).

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Decisión nº 1718/2006/EE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de noviembre de 2006, relativa a la aplicación de un programa de apoyo al sector audiovisual europeo (MEDIA 2007)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 327/12 de 24/11/2006*)

## **1718/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2006ko azaroaren 15ekoa**

### **Europako ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko programa aplikatzeari buruzkoa (MEDIA 2007)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta bereziki, 150. artikuluko 4. atala, nahiz 157. artikuluko 3. atala ikusirik,

Batzordearen proposamena ikusirik,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena (1) ikusirik,

Eskualdeetako Komitearen irizpena (2) ikusirik,

Tratatuko 251. artikuluan (3) ezarritako prozedurari jarraiki,

eta hauek kontutan hartuta:

(1) Ikus-entzunezko sektoreak funtsezko egitekoa du hiritargo europarra osatzeko, gaur egungo bektore nagusietako bat baita Batasunaren funtsezko gizarte- eta kultura-balio partekatatu nahiz komunak zabaltzeko europarren artean, bereziki, gazteen artean. Erkidegoaren laguntzaren xedea da ikus-entzunezko sektore europarrari bere potentzial politikoa, kulturala, soziala eta ekonomikoa garatzeko laguntza ematea, baita kulturen arteko elkarrikeria nahiz Europako kulturen elkar ezagutza sustatzeko babesa ematea ere, sektorearen potentzial hori benetako balio erantsia baita hiritargo europarra sortzeko. Laguntza horren bidez, xedetzat hartzen da, halaber, lehiakortasuna indartzea, eta bereziki, nazioaz kanpoko lan europarrentzat merkatu-kuota handitzea.

(2) Horrez gain, beharrezkoa da hiritartasun aktiboa bultzatzea eta gehiago ahalegintzea giza duintasunaren printzipioa errespetatzen dela ziurtatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, nahiz bazterketaren forma guztien (arrazakeria eta xenofobia barne) aurka egiteko.

(3) Programan aurreikusitako jarduketak guztiak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin bateragarriak izan behar dute, eta zehazki, adierazpen-askatasunari eta hedabideen pluralismoari buruzko 11. artikuluekin.

(4) Gutunaren 22. artikuluan xedatzen da Batasunak kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuko dituela. Hortaz, beharrezkoa da erreparatzea Batasuneko Estatu Kide txikiaren behar espezifikoari eta hizkuntza-eremu bati baino gehiago duten Estatuari.

(5) Ikus-entzunezko sektorerako Erkidegoaren laguntzak, Tratatuko 151. artikulua kontutan hartzen du.

(6) Lisboan 2000ko martxoaren 23 eta 24an egindako Kontseilu Europarrean Batasunerako ezarri zen helburu estrategiko berriaren testuinguruan ere kokatzen da Erkidegoak ikus-entzunezko sektoreari ematen dion laguntza, hau da, prestakuntza, enplegua, erreforma ekonomikoa, eta gizarte-koherentsia sustatzea ezagutzan oinarritutako ekonomia alderdi gisa. Ondorioetan, Kontseilu Europarrak baieztatu zuen ikus-entzunezko industriek balio erantsia sortzen dutela, eta sarean islatzen eta baliatzen dutela Europako kultura-aniztasuna. Planteamendu hori Bruselan 2003ko martxoaren 20an eta 21ean egindako Kontseilu Europarraren ondorioetan berretsi zen.

(7) Erkidegoak ikus-entzunezko sektoreari ematen dion laguntzak MEDIA I, MEDIA II, MEDIA Plus eta MEDIA-Prestakuntza (4) programetako eskarmentua du oinarri. Programa horiek Europako ikus-entzunezko industriaren garapena bultzatu dute 1991.etik, programen ebaluazioan argi egiaztatu ahal izan denez.

(8) Lortutako emaitzek agerian jarri dute Erkidegoaren ekintzak, batez ere, alderdi hauetan bideratu behar direla:

- ikus-entzunezko produkzioaren aurreko fasean, ikus-entzunezko lan europarren garapenean eta ikus-entzunezkoen arloko gaitasunen jabetzaren nahiz hobekuntzan; azken ekintza hori ikus-entzunezko lanen aurre-produkzioaren prozesuko osagai gisa hartu behar da,

- ikus-entzunezko produkzio-prozesuaren ondoren, banaketan, zinema-aretoetako proiektuak, eta ikus-entzunezko lan europarren sustapenean,

- digitalizazioan, ikus-entzunezko sektoreari indartzeko laguntza garrantzitsu bat eman, eta MEDIA 2007 programaren funtsezko ezaugarria

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

izateko. Europako ikus-entzunezko merkatuaren zatiketa gaintze aldera, zerbitzu digitalak nahiz katalogo europarrak babestea programaren lehentasunetako bat da.

(9) Egileak (gidoigile eta zuzendariak) haien sormen-prozesuan estimulatu behar ditu MEDIA programak, eta ikus-entzunezko sektore europarraren berritze-gaitasuna indartuko duten sormen-teknikak garatu eta aplikatzeko animatu.

(10) Filmen proiektioetarako hainbat digitalizazio-plataforma dago, erabilera, erabiltzaile, eta behar desberdinen arabera. MEDIA programako proiektu pilotuak ikus-entzunezko sektorean berrikuntzak egiteko proba-eremua dira.

(11) MEDIA Plus eta MEDIA-Prestakuntza programen osagarri gisa sartutako "Hazkuntza eta ikus-entzunezko sektorea: i2i ikus-entzunezkoa" prestaketa-ekintzak fase berria ireki du ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko Erkidegoaren politiken aplikazioan, batez ere, ikus-entzunezko sektoreko enpresa ertain eta txikiak (ETE) finantzazioa eskuratzeko zituzten arazoak konpondu nahi izan dituelako. "Hazkuntza eta ikus-entzunezko sektorea: i2i ikus-entzunezkoa" ekintzaren ebaluazioak agerian utzi du sektorearen beharretara ondo moldatu dela, eta beharrezkoa dela Erkidegoaren jardunak ildo horretatik jarraitzea, baina, halaber, era zuzenagoan bideratu beharko litzatekeela sektoreko behar espezifikotara.

(12) Kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren ondoriozko merkatuaren zatiketa dela medio, eta horrexegatik, kapital-urritasun kronikoa duten ETE nahiz enpresa oso txikien kopuru handia dagoenez, ikus-entzunezko sektore europarraren ezaugarri bereizgarriak dira garapenerako nahiz berrikuntzarako potentziala eta dinamismoa. Erkidegoaren laguntza martxan jartzeari dagokionez, komenigarria da ikus-entzunezko sektorearen izaera espezifikoa kontutan hartzea eta, batez ere, laguntzaren zenbatekoaren inguruko finantza- eta administrazio-prozedurak ahal beste errazten saiatzea nahiz bilatzen diren helburuetara eta ikus-entzunezko industriaren jardunera zein interesetara moldatzea.

(13) EB osoan jesapenen bidezko finantzazioa ematen espezializatutako enpresarik ia ez egotea, lehiakortasunerako oztopo handia da.

(14) Etorbizuneko laguntzak ETEntzako mailegu espezializatuak zenbateraino erraz ditzakeen zehazteko, Batzordeak eta Estatu Kideek ikus-entzunezko sektoreari ematen dioten laguntza, eta zehazki "Hazkuntza eta ikus-entzunezko sektorea: i2i ikus-entzunezkoa" prestaketa-ekintzaren emaitzak berrikusi behar dituzte.

(15) Nazioko ikus-entzunezko proiektuak sustatzeko eta kapital pribatua mugiarazteko

xedearekin Estatu Kideetan garatutako mailegu-sistemak aztertu beharra dago kapital hori nazioez gaindiko proiektu europarretarako erabil ahal izango litzatekeen ikusteko.

(16) Europako ikus-entzunezko merkatuari buruzko informazioak gardentasun eta hedatze handiagoa izatea sektoreko agenteentzat, eta bereziki ETEntzat lehiakortasun-faktorea da. Horrek inbertitzaile pribatuen konfiantza bultzatzen dezake sektorearen potentzialaren ezagutza sakonagoari esker, eta Erkidegoaren jardunaren ebaluazioa zein jarraipena ere errazten du. Europar Batasunak Ikus-entzunezko Sektorearen Europako Behatokian parte hartzeak helburu horiek betetzen lagundu behar du.

(17) 25 Estatu Kide dituen Erkidegoan, zinema-industria europarraren lehiakortasuna indartzeko erantzun estrategiko geroz eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da lankidetzaren. Beraz, sareen proiektuak gehiago babesteko beharra dago EBn eta MEDIA programaren alderdi guztietan: prestakuntza, garapena, banaketa eta sustapena. Hori Europar Batasunean 2004ko apirilaren 30aren ondoren sartu ziren Estatu Kideetako eragileekiko lankidetzari aplikatzen zaio bereziki. Komenigarria da nabarmentzea ikus-entzunezko eragileen arteko lankidetzaren estrategia orok Europako Erkidegoaren lehiakortasunari buruzko legeria bete behar duela.

(18) Europako, nazioetako, eskualdeetako edo tokiko zinemarentzako laguntza publikoa funtsezkoa da sektoreko egiturazko zailtasunak gaintzeko, eta ikus-entzunezko industria europarrari mundializazioaren erronkari aurre egiteko aukera emateko.

(19) Europar Batasunean sartzeko bidean dauden herrialdeak eta EEEko Akordioaren partaide diren EFTAko herrialdeak Erkidegoaren programetako parte-hartzaile potentzial gisa hartuko dira, herrialde horiekin sinatutako akordioaren arabera.

(20) MEDIA eta Eurimages-en arteko lankidetzaren indartu behar da, baina finantzen eta administrazioaren alderdiak integratu gabe.

(21) 2003ko ekainaren 19an eta 20an Salonikan egindako Europako Kontseiluak "Mendebaldeko Balkanetarako Programa: europar integrazioaren aurrea egitea" onartu zuen. Programak aurreikusten du Erkidegoaren programak Egonkortze eta Elkartze Prozesuetan dauden herrialdeentzat ere irekirik egon behar direla Erkidegoaren eta herrialde horien artean sinatu behar diren esparru-akordioaren arabera.

(22) Mugez gaindiko telebistari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena izenpetu duten gainerako herrialdeak ikus-entzunezko esparru

europarraren barruan daude, eta beraz, nahi izanez gero, eta aurrekontuaren alderdiak nahiz haien ikus-entzunezko industriren lehentasunak kontutan hartuta, programa honetan parte hartzeko aukera izan behar dute, edota gehigarriko kredituetan eta alde interesatuen artean adostutako baldintzen arabera modalitateetan oinarritutako lankidetzaz mugatuagoa izateko aukera.

(23) Europarrak ez diren hirugarren herrialdeekiko lankidetzak, elkarrekiko interes orekatuetan oinarritua, ikus-entzunezko industria europarrari balio erantsia eman diezaike sustapenari, merkaturako sarbideari, banaketari, hedatzeari, eta herrialde horietan lanari ustiapenari dagokionez. Lankidetzaz hori kreditu gehigarrien nahiz alde interesatuek adostuko dituzten modalitate espezifikoaren bidez bideratu beharko da.

(24) Irregularitasunak zein iruzurrak prebenitu, eta funts galduak, ordainduak edo oker erabilitakoak berreskuratzeko neurri egokiak aplikatu beharra dago.

(25) Erabaki honek programak irauten duen eperako diru-zuzkidura ezartzen du; Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren nahiz aurrekontu-diziplinaren eta finantza-kudeaketa onaren Batzordearen arteko instituzio arteko Akordioko 37. puntuaren arabera, 2006ko maiatzaren 17koa (1), diru-zuzkidura hori Aurrekontuaren Autoritatearentzat funtsezko erreferentzia izango da urteroko aurrekontu-prozeduraren bitartean.

(26) Batzordeari esleitutako exekuzio-eskumenen erabiltze-prozedurak ezartzen dituen 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera, egokia da Erabaki hau bideratzeko beharrezkoak diren neurriak onartzea.

(27) Ekintzen jarraipen- eta ebaluazio-modalitateek urteko txosten xehatuak eta adierazle espezifiko kuantifikagarri, egingarri eta egokiak izan behar dituzte, betetzeko epe batekin.

(28) Komeni da xedapen iragankorrak aurreikustea MEDIA Plus zein MEDIA-Prestakuntza eta Erabaki honek ezarritako programaren arteko trantsizioa bermatzeko.

(29) Estatu Kideek ezin dituztenez Erabaki honetan jasotako helburuak behar den heinean bete, eta ondorioz, ekintzaren tamaina edo efektuak direla medio, Erkidegoaren mailan hobe bete daitezke helburuok, eta Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan enuntziatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erabaki hau ez doa aipatutako helburuak betetzeko beharrezkoa den

baino urrunago.

ERABAKI DUTE

I. KAPITULUA

**PROGRAMAREN HELBURU OROKORRAK ETA DIRU-ZUZKIDURA**

*1. Artikulua*

**Programaren helburu orokorrak eta lehentasunak**

1. Erabaki honen bidez, Europako ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko programa ezarri da 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31rako eperako, aurrerantzean “programa” deituko dena.

2. Ikus-entzunezko sektorea funtsezko bektorea da Europako kultura-baloreak transmititu eta azaleratzeko, nahiz lanpostu oso gaituak eta etorkizunerako aukerak dituztenak sortzeko. Sektorearen sormen-gaitasuna lehiakortasunari eta publikoaren erakarpenari dagokionez positiboa da. Programaren xedea da ikus-entzunezko sektorea ekonomikoki indartzea bere eginkizun kulturalak era optimoan bete dituzan, eduki indartsua eta anitza zein ondare baliotsua eta eskuragarria izan dezan eta nazio-mailako laguntzari balio erantsia eman diezaión.

Hauek dira programaren helburu orokorrak:

a) Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna nahiz zinemako eta ikus-entzunezko ondarea zaindu eta gorestea, publikoak eskura dituela bermatzea, eta kulturen arteko elkarrizketa erraztea.

b) Europar Batasunaren barruan nahiz kanpoan, ikus-entzunezko lan europarren zirkulazioa eta ikus-entzuleak ugartzea, baita eragileen arteko lankidetzaz handiagorearen bidez ere;

c) Europako ikus-entzunezko sektorearen lehiakortasuna indartzea merkatu europar ireki, lehiakor, eta enpleguaren aldeko batean, eta, horren baitan, ikus-entzunezko sektoreko profesionalen arteko loturak sustatzea.

3. Helburuok betetzeko, hauek babestuko ditu programak:

a) Ikus-entzunezko produkzio-prozesua baino lehen: ikus-entzunezko arloan gaitasunez jabetu eta horiek hobetzea, eta ikus-entzunezko lan europarren garapena;

b) produkzio-prozesuaren ondoren: ikus-entzunezko lan europarren banaketa eta sustapena;

c) programa merkatuaren bilakaerara moldatzen

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

dela bermatzeko xedea duten proiektu pilotuak.

4. 3. atalean zerrendatutako esku-hartzearen eremuetan, lehenetsun hauek hartuko dira kontutan:

a) ikus-entzunezko sektorean sormena bultzatzea, baita Europako zinema- eta ikus-entzunezko ondarearen ezagutza eta hedakuntza sustatzea ere;

b) ikus-entzunezko sektore europarraren egitura sendotzea, bereziki ETEak;

c) Europako ikus-entzunezko merkatuaren barruan, ikus-entzunezko produkzio-gaitasun handia duten herrialdeen eta ikus-entzunezko produkzio-gaitasun urria edota eremu geografiko nahiz linguistiko txikia duten herrialdeen arteko desorekak murriztea.

d) Digitalizazioari dagokionez, merkatuaren jarraipena eta laguntza, euskarri digitalean dauden film europarren katalogo digital erakargarrien sustapena barne.

### *2. Artikulua*

#### **Finantza-zuzkidura**

1. Programa hau bideratzeko finantza-zuzkidura, 1. artikuluko 1. atalean definitutako eperako, 754.950.000 eurokoa izango da. Zenbatekoaren sektorekako banakatze adierazlea eranskinaren II. kapituluko 1.4 puntuan jaso da.

2. Aurrekontuen Autoritateak finantza-esparruaren mugen barruan baimenduko ditu urteko kredituak.

## II. KAPITULUA

### **IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOAREN AURREKO FASERAKO HELBURU ESPEZIFIKOAK**

### *3. Artikulua*

#### **Ikus-entzunezko arloan gaitasunez jabetzea eta gaitasunok hobetzea**

Ikus-entzunezko arloan gaitasunez jabetu, eta horiek hobetzeari dagokionez, hauek dira programaren helburuak:

1) Ikus-entzunezko sektoreko profesionalen gaitasunak indartzea garapenaren, produkzioaren, banaketaren eta hedatzearen arloetan, ikus-entzunezko lan europarren kalitatea eta aukerak hobetzeko asmoz. Programak bereziki babestuko ditu hauekin erlazionatutako ekintzak:

a) Gidoiak idazteko teknikak, ikus-entzunezko lan europarren kalitatea nahiz zirkulazio-aukerak hobetzeko.

b) ikus-entzunezko lanen produkzioaren,

banaketaren, eta sustapenaren ekonomia-, finantza- eta merkataritza-kudeaketa, garapen-fasetik estrategia europarrak prestatze aldera.

c) hasieratik teknologia digitalak kontutan hartzea ikus-entzunezko programa europarren produkzioarako, produkzio ondokorako, banaketarako, merkaturatzerako eta artxibatzerako.

Gainera, 2. puntuko a), b) eta c) letretan oinarritutako prestakuntza-ekintzak garatzen diren herrialdeetakoak ez diren profesional eta prestatzaileen parte-hartzerako neurriak hartuko dira.

2) Ikus-entzunezko prestakuntza-ekintzen dimentsio europarra hobetzea hauen bidez:

a) laguntza prestakuntzarako eragile europarren sare-lanari eta mugikortasunari, batez ere:

- zinema-eskola europarrak,

- prestakuntza-institutuak,

- sektore profesionaleko eragileak;

b) prestatzaileen prestakuntza;

c) zinema-eskolentzako laguntza;

d) 1. puntuan zerrendatutako ekintzen barruan finantzatutako erakundearen sustapen- eta koordinazio-ekintzak ezartzea.

3) Diru-laguntzen bitartez, 2004ko apirilaren 30aren ondoren Europar Batasunean sartutako Estatu Kideetako profesionalei 1. puntuan zerrendatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko aukera ematea.

1., 2. eta 3. puntuetan aipatutako neurriak eranskineko xedapenen arabera aplikatuko dira.

### *4. Artikulua*

#### **Garapena**

1. Garapenaren arloan, programaren helburuak hauek izango dira:

a) merkatu europarra eta nazioartekoa xede duten, eta produkzio-enpresa independenteek aurkeztu dituzten produkzio-proiektuen garapenean laguntzea;

b) Enpresa eta produkzio-proiektu europarrentzako planen prestakuntzan laguntzea, bereziki koprodukzioen finantzazioa.

2. Batzordeak profesionalen gaitasunak hobetzeko ekintzen eta 1. atalean zerrendatutakoaren arteko bateragarritasuna zainduko du.

3. Eranskinetako xedapenek adierazitako moduan aplikatuko dira 1., 2. eta 3. ataletan aipatutako neurriak.

III. KAPITULUA  
**IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOAREN  
ONDORENGO FASERAKO HELBURU  
ESPEZIFIKOAK**

5. Artikulua

**Banaketa eta hedapena**

Banaketa eta hedatzearen arloan, programaren helburuak hauek izango dira:

a) banatzaileak naziokoak ez diren film europarren koprodukzioan, erosketan eta sustapenean inbertitzeko nahiz merkaturatze-estrategia koordinatuak ezartzeko animatuz, banaketaren sektore europarra indartzea;

b) nazioarteko eta Europako merkatuetan naziokoak ez diren film zirkulazioa hobetzea, horiek esportatzea, euskarri guztietan banatzea eta zinema-aretoetan programatzea sustatzen duten neurrien bitartez;

c) produkzio-enpresa independenteek ekoiztutako ikus-entzunezko lanak nazioz gaindi heda dadin sustatzea, alde batetik, hedatzaileen arteko lankidetzak, eta bestetik, produktore eta banatzaile independenteen arteko animatuz;

d) ikus-entzunezko lan europarren digitalizazioa, eta merkatu digital lehiakorren garapena bultzatzea;

e) zinema-aretoak animatzea formatu digitalean banatzea dituen abantailak baliatzea.

a)-tik e)-rako letretan aipatutako neurriak eranskinetako xedapenen arabera aplikatuko dira.

6. Artikulua

**Sustapena**

Sustapenaren arloan, programaren helburuak hauek izango dira:

a) ikus-entzunezko lan europarren zirkulazioa hobetzea ikus-entzunezko sektore europarra Europako eta nazioarteko merkatu profesionaletan sartzen dela bermatuz;

b) nazioarteko nahiz Europako publikoarentzat ikus-entzunezko lan europarren eskuragarritasuna hobetzea;

c) filmak sustatzeko erakunde nazionalen eta ikus-entzunezko programen arteko ekintza komunak bultzatzea;

d) Europako zinema- eta ikus-entzunezko ondarea sustatzeko ekintzak bultzatzea, eta Europa mailan nahiz nazioartean publikoarentzat ondare hori eskuragarriago egitea.

a)-tik d)-rako letretan aipatutako neurriak eranskinetako xedapenen arabera aplikatuko dira.

IV. KAPITULUA  
**PROIEKTU PILOTUAK**

7. Artikulua

**Proiektu pilotuak**

1. Merkatuaren bilakabideari moldatzen dela bermatze aldera, programak proiektu pilotuak babestu ahal izango ditu, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartu eta erabiltzea.

2. 1. atala aplikatzeari dagokionez, Batzordeak kontsulta-talde teknikoan aholkua jasoko du; Estatu Kideek Batzordearen proposamenez izendatuko dituzte taldeok osatuko dituzten adituak.

V. ATALA  
**PROGRAMA APLIKATZEKO MODALITATEAK  
ETA FINANTZA-XEDAPENAK**

8. Artikulua

**Hirugarren herrialdeei buruzko xedapenak**

1. Jarraian aipatzen diren herrialdeek hartu ahal izango dute parte programan, betiere, beharrezko baldintzak bete, eta kreditu osagarriak ematen badira:

a) EEEko kide diren EFTAko herrialdeak, EEEko Akordioaren xedapenei jarraiki;

b) atxiki aurreko estrategia bat duten eta atxikitze bidean dauden herrialdeak, esparru-akordioan Erkidegoaren programetan eta Elkartze Kontseiluetako erabakietan herrialde horiek parte hartzeko ezarri diren modalitate, baldintza eta printzipio orokorren arabera.

c) mendebaldeko Balkanetako herrialdeak, Erkidegoaren programetan parte har dezaten ezarriko diren esparru-akordioetako modalitateen arabera.

2. Programan, 1. atalean aipatu ez diren baina mugez gaindiko telebistari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmeneko Estatu Parte diren herrialdeek ere parte hartu ahal izango dute, alde interesatuek adosten dituzten baldintzen arabera emango diren kreditu osagarriak oinarri hartuta.

3. Programa 1. eta 2. ataletan aipatutako hirugarren

herrialdeei ireki baino lehen, haien legedia Erkidegoaren altxorarekin bateragarria den aztertu ahal izango da, 89/552/EEE Zuzentaraua, 1989ko urriaren 3koa, telebista bidezko irratidifusioaren gaineko Estatu Kideen legezko, arauzko eta administrazio-xedapen jakin batzuei buruzkoa (1) ere kontutan hartuz. Xedapen hori ez zaio aplikatuko Erabaki honetako 3. artikuluan aurreikusitako ekintzei.

4. Halaber, adostu beharko diren kreditu osagarriak eta modalitate espezifikoak oinarri hartuta, Europar Batasunarekiko lankidetzaz edo elkartzeko akordioak izenpetu dituzten hirugarren herrialdeekiko lankidetzaz ere aurreikusten du programak, akordio horiek ikus-entzunezko sektoreari buruzko klausulak baitauzkate. Programan bete-betean parte hartu nahi ez duten mendebaldeko Balkanetako herrialdeek programarekin kooperatu ahal izango dute atal honetan ezarritako baldintzetan.

#### *9. Artikulua*

##### **Finantza-xedapenak**

1. Pertsona fisiko nahiz juridikoak izan daitezke programaren onuradun.

Erkidegoa alderdi kontratugile duten akordio eta hitzarmenek araututakoa bete beharrekoa izanda, programaren enpresa onuradunak Estatu kideetakoak izan edo/eta Estatu kideetako herritarrenak izan eta izaten jarraitu beharko dute, zuzenean, edo gehiengo partaidetzaren bidez.

2. Onuradunen ezaugarrien eta ekintza-moten arabera, Batzordeak erabaki ahal izango du lan-ekintza edo -programa bideratzeko beharrezkoak diren gaitasun eta kualifikazio profesionalen egiaztapenetik salbustea. Batzordeak kontutan hartu ahal izango ditu babestutako ekintza-mota, delako ikus-entzunezko sektoreko publiko-hartzailearen profil espezifikoa, eta programaren helburuak ere.

3. Ekintza-motaren arabera, finantza-laguntzak beka edo diru-laguntza eran eman ahal izango dira, edota beste edozein tresnaren bitartez, Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduan (EE, Euratom), 2002ko ekainaren 25ekoa, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikagarri zaion finantza-erregelamendua onartzeari buruzkoan (1) jasotzen den bitartean. Batzordeak programaren barruan bideratutako ekintza edo proiektuei ere sariak eman ahal izango dizkie. Ekintza motaren arabera, eta Batzordearen 2002ko abenduaren 23ko 2342/2002 Erregelamenduan 181. artikuluan (EE, Euratom), 1605/2002 Erregelamenduan garapenari buruzkoan (2), zehaztutako zenbatekoak gainditzen ez dituzten ekarpenetarako, kopuru jakin finko batzuen araberrako finantzazioak baimendu edo kostu

unitarioen baremoak aplikatu ahal izango dira.

4. Administrazio- eta finantza-baldintzei dagokienez, Batzordeak proportzionaltasun-printzipioa, egokitasun-irizpideak eta finantza-gaitasuna errespetatuko ditu, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta.

5. Programaren arabera emandako finantza-laguntzak ezin izango dira babestutako operazioen behin betiko kostuaren %50 baino gehiago izan. Hala ere, eranskinean esanbidez aurreikusitako kasuetan, ehuneko hori %75era iritsi ahal izango da. Gainera, laguntza ematean, emateko prozedura garden eta objektiboak ziurtatuko dira.

6. Elkarrekin finantzatutako ekintzen izaera espezifikoaren arabera, eta 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduan 1. ataleko 112. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Batzordeak kostu finantzagarriztat jo ahal izango ditu babestutako ekintzarekin zuzenean erlazionatutako kostuak, hautaketa-prozesuaren aurretik onuradunak horien zati bat bere gain hartu arren.

7. 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduan 1. ataleko 113. artikulua aplikatuz, eta 2342/2002 Erregelamenduan 172. artikuluekin batera, elkarrekin egiten diren finantzazioen zati bat, edo horiek osorik gauzatan eman ahal izango dira, betiere ekarpenen balorazioak ez badute gainditzen ez kontabilitate-dokumentuen bidez behar bezala justifikatutako eta benetan hartutako kostua, ez dagokion merkatuan oro har onartutako kostua. Prestakuntzarako edo sustapenerako utzitako instalazioak ekarpen horretan sartu ahal izango dira.

8. Programaren barruan emandako zenbatekoen diru-itzulketak, MEDIA programetarik (1991-2006) datozenak eta hautatutako proiektuetan erabili gabekoak MEDIA 2007 programaren beharrei erantzuteko baliatuko dira.

#### *10. Artikulua*

##### **Erabakiaren aplikazioa**

1. Batzordeak hartuko du bere gain programa aplikatzea, eranskineko xedapenei jarraiki.

2. Erabaki hau aplikatzeko behar diren ondorengo gaiei buruzko neurriak 11. artikuluan 2. atalean jasotako prozeduraren arabera hartuko dira:

a) eranskinean deskribatutako ekintza guztietarako jarraibideak;

b) proposatutako deialdien edukia, proiektuak hautatzeko irizpidea eta prozeduren definizioa;

c) programaren urteroko barne-banakatzearen inguruko gaiak, baita garapenerako, banaketarako,

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

difusiorako, sustapenerako eta profesionalen gaitasunen hobekuntzarako aurreikusi diren ekintzen artean ere.

d) ekintzen jarraipen- eta ebaluazio-modalitateak;

e) onuradun bakoitzeko eta prestakuntzarako nahiz sustapenerako urte bakoitzeko 200.000 euro, garapenerako 200.000 euro eta banaketarako 300.000 euro baino gehiago duten Erkidegoaren funtsen esleitze-proposamenak.

f) 7. artikuluan aipatzen diren proiektu-pilotuen hautaketa.

3. Erabaki hau aplikatzeko behar diren gainerako gaietarako neurriak 11. artikuluan 3. atalean jasotako prozeduraren arabera hartuko dira.

### *11. Artikulua*

#### **Lantaldearen prozedura**

1. Batzordeak Lantalde baten laguntza jasoko du.

2. Atal honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak.

1998/468/EE Erabakiko 4. artikuluan 3. atalean jasotako bi hilabetekoa izango da.

3. Atal honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 3. eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, Erabaki horren 8. artikuluan xedatutako kontutuan hartuz.

4. Lantaldeak bere barne-erregelamendua onartuko du.

### *12. Artikulua*

#### **MEDIAren bulegoak**

1. MEDIA bulegoen sare europarrak programari buruzko informazioa nazio-mailan hedatzeko exekuzio-erakundearen papera beteko du, batez ere, mugez gaindiko proiektuei dagokienez, haiek agerikoago eginez eta haien erabilpena sustatuz, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko 54. artikuluan 2. ataleko c) letran, eta 3. atalean xedatutakoa betetze aldera, eta eranskineko 2.2 puntuan definitutakoaren arabera.

2. Profesionalen arteko elkartrukeak eta kontaktuak errazte aldera, eta programak babestutako gertakari garrantzitsuak nahiz sari eta golardoak publikoari ezagutarazteko, MEDIAren bulegoen arteko lankidetzaren sustatu behar da sareen bitartez, bereziki gertuko sareen bitartez.

3. MEDIA bulegoek irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) nahikoa langileria izatea, nazioarteko lankidetzaren ingurune baterako hizkuntza-kualifikazio eta kualifikazio profesional dagokienez.

b) azpiegitura egokiak izatea, batez ere, ekipamendu informatikoei eta komunikabideei dagokienez;

c) haien eginkizunak era egokian betetzeko, eta edozein interes-gatazka ekiditeko aukera ematen dien administrazio-testuinguruan egitea haien lana.

### *13. Artikulua*

#### **Koherentzia eta osagarritasuna**

1. Programa exekutatzeko, Estatu Kideekiko lankidetzaren estuan, Batzordeak koherentzia eta osagarritasun orokorra zainduko du prestakuntzaren edo ikus-entzunezko sektorearen esparruetan eragina duten Erkidegoaren beste politika, ekintza eta programei dagokienez.

2. Batzordeak programaren eta hezkuntzaren, prestakuntzaren, ikerketaren, zein informazioaren gizaratearen arloko Erkidegoaren beste programen arteko koordinazioa ere ziurtatuko du.

3. Batzordeak elkar erlazio eraginkorra dagoela ziurtatuko du Erkidegoak hirugarren herrialdeekin nahiz nazioarteko erakunde eskumendunekin (bereziki Europako Kontseiluarekin) duen lankidetzaren barruan bideratutako prestakuntzaren zein ikus-entzunezko sektorearen arloko ekintza zein programen eta programa honen artean (Eurimages, eta hemendik aurrera "Behatokia" deituko den Ikus-Entzunezko Sektorearen Europako Behatokia).

### *14. Artikulua*

#### **Jarraipena eta ebaluazioa**

1. Batzordeak Erabaki honek babestutako ekintzak hasierako ebaluazio bat, jarraipena, eta amaierako jarraipen bat dutela zainduko du. Jarraipen- eta ebaluazio-prozesuaren emaitzak kontutan hartuko dira programa aplikatzerakoan.

Batzordeak programaren aldizkako kanpo-ebaluazio independentea bermatuko du. Programa era eraginkorrean ebaluatze aldera, Batzordeak datuak bildu ahal izango ditu programak babestutako ekintza guztiak ikuskatzeko. Ebaluazio horrek kontutan hartuko ditu 10. artikuluko 2. atalaren d) letran aipatutako jarraipenari eta ebaluazioari buruzko Lantaldearen akordioak.

Jarraipenaren barruan, 2. ataleko a) eta c) letratan zehaztu diren txostenak eta ekintza espezifikoak aurkeztu beharko dira.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeen Komiteari dokumentu hauek aurkeztuko dizkie:

a) emaitzei eta programaren aplikazioaren alderdi kualitatibo nahiz kuantitatiboetarako buruzko erdiko ebaluazio-txostena, gehienez jota programa hasi eta hiru urtera;

b) programaren jarraitutasunari buruzko Jakinarazpena, gehienez jota programa hasi eta urte batera;

c) azken ebaluazio-txosten xehatua, 2015eko abenduaren 31 baino lehen; bertan programaren aplikazioa eta emaitzak jaso beharko dira programa bukatutakoan.

Batzordeak dagozkion estatistika zein analisiak publikatu eta hedatuko ditu MEDIA bulegoen bitartez.

3. 2. ataleko a) eta c) letrei jarraiki egindako txostenek programaren balio erantsia zehaztuko dute.

#### *15. Artikulua*

##### **Xedapen iragankorrak**

Kontseiluaren 200/821/EE Erabakia (1) eta Europako Parlamentuaren 163/2001/EE Erabakia (2) oinarri hartuta, 2006ko abenduaren 31 baino lehen hasitako ekintzak Erabaki horietan xedatutakoaren arabera kudeatzen jarraituko dira.

2000/821/EE Erabakiko 8. artikuluan eta 163/2001/EE Erabakiko 6. artikuluan aurreikusitako Lantaldea Erabaki honetako 11. artikuluan aurreikusitako Lantaldearekin ordezkatuko da.

#### VI. KAPITULUA

##### **EUROPAKO IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREAREN EUROPAKO BEHATOKIAN PARTE HARTZEA**

#### *16. Artikulua*

##### **Ikus-entzunezko sektore europarrari buruzko informazioa**

Europar Batasunak ahaleginak egingo ditu ikus-entzunezko sektore europarrari buruzko informazioaren gardentasuna eta zabalkundea handitzeko.

#### *17. Artikulua*

##### **Ikus-entzunezko Sektorearen Europako Behatokian parte hartzea**

16. artikulua aplikatzeko jardueren baitan, Europar Batasuna Behatokiko kide izango da programak irauten duen bitartean.

Batzordeak Europar Batasuna ordezkatuko du Behatokiarekiko harremanetan.

#### *18. Artikulua*

##### **Programaren helburuak betetzeko ekarpena**

Europar Batasunak Behatokian parte hartzea programaren zati bat izango da eta programaren helburuak betetzen lagunduko du:

a) herrialde desberdinetan jasotako datu alderagarriagoen bidez, merkatuaren gardentasuna bultzatuz, eta operadoreek estatistikak eta finantza-informazioa, bereziki Europar Batasunera 2004ko apirilaren 30aren ondoren atxiki diren herrialdeei buruzko informazioa eskuragarri dutela bermatuz, era horretan Europako ikus-entzunezko sektorearen lehiakortasuna eta garapena sendotzeko.

b) programa hobe jarraitzeko aukera emanez eta bere ebaluazioa erraztuz.

#### *19. Artikulua*

##### **Jarraipena eta ebaluazioa**

Europar Batasunak Behatokian duen parte-hartzearen ebaluazioa eta jarraipena programaren ebaluazio eta jarraipenaren barruan egingo da, 14. artikuluari jarraiki.

#### VII. KAPITULUA

##### **INDARREAN SARTZEA**

#### *20. Artikulua*

##### **Indarrean sartzea**

Erabaki hau *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* publikatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izango da.  
Estrasburgon, 2006ko azaroaren 15ean.

*Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea*  
J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean, Presidentea*  
P. LEHTOMÄKI



ERANSKINA

I. KAPITULUA

## **HELBURU OPERATIBOAK ETA EGIN BEHARKO DIREN EKINTZAK**

### **1. Ikus-entzunezko arloan gaitasunez jabetu eta gaitasunok hobetzea**

1.1. Ikus-entzunezko sektoreko profesionalen gaitasunak indartzea garapenaren, ekoizpenaren, banaketaren eta hedatzearen arloetan, ikus-entzunezko lan europarren kalitatea eta aukerak hobetzeko asmoz.

1.1.1. Gidoiak idazteko teknikak.

*Helburu operatiboa:*

- eskarmentudun gidoigileek idazketa-metodo tradizioaletan nahiz interaktiboetan oinarritutako teknikak garatzeko gaitasunak hobetzeko aukera izan dezaten lortzea.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- hartzaile edo publikoaren identifikazioari, nazioarteko publikoarentzat gidoiak moldatu eta prestatzeari, nahiz, besteak beste, gidoigilearen, zuzendariaren, produktorearen eta banatzailearen erlazioari buruzko prestakuntza-moduluen prestakuntza, martxan jartzea, eta eguneratzea babestea.

- urruneko prestakuntza babestea, eta ikus-entzunezko ekoizpen-gaitasun urria edota eremu geografiko edo linguistiko txikia duten herrialde eta eskualdeak biltzen dituzten erakundeak nahiz elkartrukeak bultzatzea.

1.1.2. Ikus-entzunezko lanen produkzioaren, banaketaren eta sustapenaren ekonomia-, finantza- eta merkatu-kudeaketa.

*Helburu operatiboa:*

- profesionalak dimentsio europarrak jabetu eta hori integratzeko duten gaitasuna garatzea, ikus-entzunezko programen garapenaren, produkzioaren, merkaturatzearen, banaketaren, hedatzearen eta sustapenaren arloan.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- kudeaketari buruzko prestakuntza-moduluen prestaketa, martxan jartzea, eta eguneratzea babestea, dimentsio europarra kontutan hartuz,  
- urruneko prestakuntza babestea, eta ikus-entzunezko ekoizpen-gaitasun urria edota eremu geografiko edo linguistiko txikia duten herrialde eta eskualdeak biltzen dituzten erakundeak nahiz elkartrukeak bultzatzea.

1.1.3. - hasieratik teknologia digitalak kontutan hartzea ikus-entzunezko programa europarren ekoizpenerako, ekoizpen ondokorako, banaketarako, merkaturatzerako eta artxibatzerako.

*Helburu operatiboa:*

- profesionalak teknologia digitalak erabiltzeko duten gaitasuna garatzea, batez ere, produkzioaren, produkzio ondokoaren, banaketaren, merkaturatzearen, artxibatzearen eta multimedien arloetan.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- ikus-entzunezko teknologia digitalei buruzko prestakuntza-moduluen prestaketa, martxan jartzea eta eguneratzea babestea.

- urruneko prestakuntza babestea, eta ikus-entzunezko ekoizpen-gaitasun urria edota eremu geografiko edo linguistiko txikia duten herrialde eta eskualdeak biltzen dituzten erakundeak nahiz elkartrukeak bultzatzea.

1.2. Ikus-entzunezko prestakuntza-ekintzen dimentsio europarra hobetzea.

1.2.1. Prestakuntza-eragile europarrak sareetan integratzea eta haien mugikortasuna babestea, bereziki zinema-eskola europarrarena, prestakuntza-zentroena eta sektore profesionaleko eragileena.

*Helburu operatiboa:*

- dauden prestakuntza-zentroen edota -jardueren arteko elkartrukeak eta lankidetzak bultzatzea.

*Egin beharko den ekintza:*

- Programaren onuradunak haien prestakuntza-jardueren koordinazioa areagotzeko animatzea, bereziki prestakuntza osagarria jarduerena, Erkidegoaren laguntza, batez ere, eragileen parte hartzea duen kooperazioa, telebista bidezko difusio-erakundeena barne, jaso dezakeen sare europarra garatzeko.

1.2.2. Prestatzaileen prestakuntza.

*Helburu operatiboa:*

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- prestatzaile gaituak izatea.

*Egin beharko den ekintza:*

- prestatzaileen prestaketan laguntzea, bereziki urruneko irakaskuntzaren bidez.

1.2.3. Laguntzak zinema-eskolei.

*Helburu operatiboa:*

- Europan zehar zinema-ikasleen mugikortasuna erraztea.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- prestakuntza-proiektu bati lotutako mugikortasun-bekak bultzatzea,

- talentu eta profesional berrien garapena bultzatzea Talentu Berrien Saria sortzearen bitartez.

1.2.4. 1.2.1 puntuan oinarritutako erakundeen sustapen- eta koordinazio-ekintzak ezartzea.

*Helburu operatiboa:*

- programaren barruan laguntza baten onuradun diren proiektuen sustapena eta koordinazioa sustatzea.

*Egin beharko den ekintza:*

- programak babestutako prestakuntza-jardueren sustapen- eta koordinazio-neurri espezifikoak ezartzen laguntzea.

1.2.5. Diru-laguntzen bitartez, 2004ko apirilaren 30aren ondoren Europar Batasunean sartutako Estatu Kideetako profesionalen 1.1 puntuan zerrendatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko aukera ematea.

*Helburu operatiboa:*

- Europar Batasunera 2004ko apirilaren 30aren ondoren atxikitako Estatu Kideetako profesionalen parte hartzea erraztea programak babestutako proiektuetan.

*Egin beharko den ekintza:*

- beka-mekanismo bat sortzen laguntzea.

## **2. Garapena**

2.1. Merkatu europarra eta nazioartekoa xede duten, eta ekoizpen-enpresa independenteek (bate zere ETEek) aurkeztu dituzten ekoizpen-proiektuen garapenean laguntzea.

*Helburu operatiboak:*

- genero hauetako lan europarren garapenean laguntzea: fikzioa, animazioa, dokumentala eta multimedia,

- enpresak potentzial internazionala duten kalitatezko lanak ekoiztera bultzatzea,

- enpresak garapen-fasetik produkzioaren nahiz banaketaren arloetarako teknologia digitalak erabiltzeko animatzea,

enpresak garapen-fasetik nazioarteko ustiapen-, merkaturatze- eta banaketa-estrategiak prestatzeko animatzea.

- ETEei garapenerako laguntza eskuratzeko aukera ematea, eta ekintzak haien beharretara moldatzea,

- ikus-entzunezko sektoreko gaitasun profesionalen hobekuntzari dagokionez, MEDIAk babestutako ekintzekiko osagarritasuna bultzatzea.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- ikus-entzunezko lanen proiektuen, edo proiektuen katalogoen garapena babestea,

- garapen fasetik ikus-entzunezko lan europarren digitalizazioa bultzatzea.

2.2. Enpresa eta produkzio-proiektu europarrentzako planen prestakuntzan laguntzea, koprodukzio-proiektuak barne.

*Helburu operatiboa:*

- produkzio-enpresek genero hauetako dituzten produkzio-proiektuetarako finantzazio-planak presta ditzaten bultzatzea: fikzioa, animazioa,

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

sormenezko dokumentala eta multimedia,

- "Hazkuntza eta ikus-entzunezko sektorea: ikus-entzunezko i2i ekimena" prestakuntza-ekintzatik eratorritako neurri gisa, Europako mailan finantza-bazkideak bilatzea sustatzea, inbertitzaile publiko eta pribatuen arteko sinergia bilatu, eta produkzio-fasetiko banaketa-estrategiak prestatzen laguntzeko.

### *Egin beharko diren ekintzak:*

- ETEek aurkeztutako produkzio- eta koprodukzio-proiektuen finantzazio pribatuen zeharkako kostuak finantzatzea (adibidez, finantza-gastuak, aseguruenak, edo xede onaren bermearenak),

- ETEei, eta bereziki, produkzio-enpresa independenteei ikus-entzunezko lan europarren garapenerako nahiz koprodukzioarako inbertsio-planak ematen dituzten finantza-zerbitzuetara sartzeari erraztea, nazioartean banatzeko aukerak dituzten lanei dagokienez,

- finantza sozietateak animatzea nazioartean banatzeko aukerak dituzten ikus-entzunezko lan europarren garapena eta koprodukzioa babestera,

- ikus-entzunezko sektorean diharduten agentzia nazionalen arteko lankidetzaren babestea.

### **3. Banaketa eta hedapena**

#### *Zeharkako helburu operatiboa:*

- banatutako ikus-entzunezko lan europarren kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea.

#### *Egin beharko den ekintza:*

- edozein dela bidea, baina bereziki, kanal digitaletan hedatutako ikus-entzunezko lan europarren banaketan eta hedatzean, bikoizketa eta azpidazketa babestea, produktoreen, banatzaileen eta hedatzaileen mesederako.

3.1. Banatzaileak naziokoak ez diren film europarren koprodukzioan, erosketan eta sustapenean inbertitzeko nahiz merkaturatze-estrategia koordinatuak ezartzeko animatuz, banaketaren sektore europarra indartzea.

#### *1. helburu operatiboa:*

- zinema-banatzaileak koprodukzioan, ustiapen-eskubideen erosketan eta naziokoak ez diren film europarren sustapenean inbertitzera animatzea.

#### *Egin beharko diren ekintzak:*

- programan parte hartzen duten Estatuetan, naziokoak ez diren film europarrek saldutako sarrera-kopuruarekiko proportzioan, banatzaile europarrei babesa emateko sistema automatikoa ezartzea, film bakoitzeko gehienezko zenbateko batekin, eta herrialdearen arabera moldaturik,

- banatzaileek laguntza hori hauetarako bakarrik erabiltzen dutela aurreikustea:

- naziokoak ez diren film europarren koprodukzioarako,

- naziokoak ez diren film europarren ustiapen-eskubideak erosteko,

- naziokoak ez diren film europarren moldaketa- (kopiak egitea, bikoizketa eta azpidazketa), sustapen- eta publizitate-gastuetarako.

#### *2. helburu operatiboa:*

- banatzaile europarren arteko lankidetzaren sustatzea Europako merkaturaren estrategia komunak har ditzaten.

#### *Egin beharko den ekintza:*

- naziokoak ez diren film europarren banaketarako laguntza-sistema selektiboa ezartzea onuradun Europako banatzaile-taldeentzat, eta iraunkorki eratuak daudenean laguntza zuzena ematea.

#### *3. helburu operatiboa:*

- Banatzaile, produktore eta salmenta-agenteen arteko lankidetzaren bultzatzea, garapen fasetik, film europarrak merkaturatzeko nazioarteko estrategiak ezartzeko.

#### *Egin beharko den ekintza:*

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- zinema-lan europarrak sustatzeko kit baten sormena babesteko sistema ezartzea (azpidazkidun kopia, nazioarteko soinu banda -musika eta efektu bereziak- eta sustapen-materiala biltzen dituen).

### *4. helburu operatiboa:*

- ETEei ikus-entzunezko lan europarrak banatzeko eta nazioartean saltzeko finantzazioa erraztea.

### *Egin beharko den ekintza:*

- nazioarteko salmentari edota banaketari lotutako zeharkako kostuak (adibidez, finantza- eta aseguru-gastuak) finantzatzea; besteak beste, nazioarteko katalogoen erosketak, film horientzat merkatu berrien prospekzioa eta banatzaile europarren talde iraunkorrak sortzea.

3.2. Nazioarteko eta Europako merkatuetan naziokoak ez diren film europarren zirkulazioa hobetzea, horiek esportatzea, euskarri guztietan banatzea eta zinema-aretoetan programatzea sustatzen duten neurrien bitartez.

### *1. helburu operatiboa:*

- zinema-banatzaileak naziokoak ez diren film europarrei dagozkien edizio- eta sustapen-kostuetan inbertitzera animatzea.

### *Egin beharko diren ekintzak:*

- naziokoak ez diren pelikula europarren sustapenerako eta merkaturatzerako laguntza-sistema selektiboa ezartzea zinema-banatzaileentzat. Filmak hautatzeko irizpideetan, proiektuak haien jatorriaren nahiz aurrekontu-mailaren arabera bereizteko xedapenak sartu ahal izango dira.

- Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna garatzeko interesgarriak diren filmei babes berezia ematea,

- naziokoak ez diren aldi jakin bateko film europarren katalogo bat prestatzeko laguntza ematea.

### *2. helburu operatiboa:*

- naziokoak ez diren film europarrak merkatu europarrean ustiatzen laguntzea, bereziki, aretoen sare baten koordinazioa bultzatuz.

### *Egin beharko diren ekintzak:*

- erakusle eta operadoreak animatzea estreinaldiko aretoetan gutxieneko epe batez naziokoak ez diren film europarren kopuru esanguratsua programatzera. Areto bakoitzari ematen zaion laguntza programazioaren arabera eta erreferentzia-epean naziokoak ez diren film europarretarako saldu diren sarreren kopurua kontutan hartuz ezarriko da,

- aretoetan publiko gaztea hezi eta sentsibilizatzeko ekintzen garapenean laguntzea,

- aipatutako programazioaren ildotik baterako ekintzak egiten dituzten erakusle europarren sareak sortzen eta finkatzen laguntzea.

### *3. helburu operatiboa:*

- film europarren nazioarteko salmenta eta esportazioa sustatzea, batez ere naziokoak ez diren filmak Europan.

### *Egin beharko den ekintza:*

- delako epe jakin batean merkaturatutako emaitzen arabera laguntza-sistema ezartzea filmak nazioartean banatzeko sozietate europarrentzat (salmenta-agentek). Laguntza hori naziokoak ez diren film europar gehiago erosteko, eta horiek merkatu europarrean nahiz nazioartekoan sustatzeko erabili beharko da.

3.3. Produzio-enpresa independenteek ekoiztutako ikus-entzunezko lanak nazioz gaindi hedatzea sustatzea, alde batetik, hedatzaileen arteko lankidetzak, eta bestetik, produktore eta banatzaile independenteen arteko bultzatuz.

### *1. helburu operatiboa:*

- jatorria produzio-enpresa independenteetan duten eta naziokoak ez diren ikus-entzunezko lanen hedatzea sustatzea.

### *Egin beharko den ekintza:*

- produktore independenteak hainbat Estatu Kidetako gutxienez hiru banatzaileen parte hartzea eskatzen duten lanak egitera animatzea (fikzioa, dokumentala, animazioa). Onuradunak hautatzeko irizpideek proiektuak haien aurrekontu-mailaren arabera bereizteko xedapenak jaso ahal izango dituzte. Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna nahiz ikus-entzunezko ondarea balioesteko interesa duten filmei laguntza berezia ematea.

### *2. helburu operatiboa:*

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- Europako produkzio-enpresa independenteei finantzazioa erraztea.

*Egin beharko den ekintza:*

- Ereku linguistiko desberdinetako Estatu Kideetako gutxienez hiru hedatzailearen parte hartzea eskatzen duten lanen (fikzioa, dokumentala eta animazioa) produktiotik eratorritako zeharkako kostuak (adibidez, finantza- edo aseguru-gastuak eta xede onaren bermearenak) finantzatzea.

*3. helburu operatiboa:*

- produktore independenteei egindako telebista-programa europarren nazioarteko banaketa bultzatzea. Programa horiek banatzeko produktore independentearen adostasuna beharrezko izango da, eta produktoreak salmentengatiko diru-sarreraren zati egokia jasoko du.

*Egin beharko den ekintza:*

- delako epe jakin batean merkaturatzen lortutako emaitzen arabera laguntza-sistema ezartzea ikus-entzunezko lanak nazioartean banatzeko sozietate europarrentzat (nazioarteko banatzaileak). Nazioarteko banatzaileek lan europar berriak erosteko eta horiek merkatu europarrean nahiz nazioartekoan sustatzeko erabili beharko dituzte horrela jasotako laguntzak.

3.4. Ikus-entzunezko lan europarren digitalizazioa sustatzea.

*1. helburu operatiboa:*

- naziokoak ez diren lan europarren banaketa hobetzea erabilera pribaturako euskarri digitalean (DVD), Europako mailan kopia matrize eleanitzak sortzeko editoreen arteko lankidetzara bereziki bultzatuz,

- lan europarren ediziorako teknologia digitalen erabilera bultzatzea (kopia matrize digitalak egin, eta banatzaile europar guztien eskura jartzea),

- Editoreak bereziki animatzea naziokoak ez diren ikus-entzunezko lan europarrei dagozkien sustapen- eta banaketa-kostuetan inbertitzera.

- lan europarren eleaniztasuna babestea (bikoizketa, azpidaketa eta sustapen eleanitza).

*Egin beharko diren ekintzak:*

- ikus-entzunezko eta zinema-lan europarrak erabilera pribaturako euskarri digitaletan (DVD edo DVD Rom) merkaturatzen dituzten editoreei laguntzeko sistema automatikoa ezartzea, epe jakin batean merkaturatzen lortutako emaitzen arabera zehaztua. Editoreek naziokoak ez diren lanen edizio- eta banaketa-gastuetan inbertitu beharko dituzte horrela jasotako laguntzak (edukien digitalizazioa babestea horiek banatzeko).

*2. helburu operatiboa:*

- naziokoak ez diren lan europarren hornidura banaketa-zerbitzu aurreratuen, eta hedabide berrien bidez (Internet, eskatu ahalako bideoa, etab.) erraztea sarean bana daitezkeen, eta aldi berean, pirateriaren aurka borrokatzeko, lanak *on line* babesteko teknikak garatzea,

- ikus-entzunezko programen industria europarra teknologia digitalaren bilakaerari egokitzea erraztea, bereziki sarean banatzeko zerbitzu aurreratuei dagokienez.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- lanen digitalizazioa eta sustapen- nahiz publizitate-materiala euskarri digitalean egitea bultzatzen duten neurrien bitartez, enpresa europarrak (sare-sarbidearen hornitzaileak, kate tematikoak, etab.) lan europarren katalogo digitalak egitera animatzea hedabide berrietan ustia daitezkeen,

- katalogo europarrak dituzten zerbitzu digitalen azaleratzea bultzatzea.

3.5. Naziokoak ez diren lan europarren kopuru esanguratsua proiektatzen dituzten aretoak euskarri digitalean banatzeak ekartzen dituen abantailak baliatzea animatzea.

*Helburu operatiboa:*

- aretoek ekipamendu digitalean inbertitzera bultzatzea, erakusleei kredituak eskuratzea erraztuz.

*Egin beharko den ekintza:*

- Ekipamendu digitalean inbertitu duten erakusleek eta operadoreek haien gain hartutako gastuak (adibidez, finantza- eta aseguru-gastuak) finantzatzea.

## **4. Sustapena**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4.1. Ikus-entzunezko lan europarren zirkulazioa hobetzea ikus-entzunezko sektore europarra Europako eta nazioarteko merkatu profesionaletan sartzen dela bermatuz.

### *1. helburu operatiboa:*

- Europan eta Europaz kanpo, profesionalak merkataritza-adierazpenetan eta ikus-entzunezko merkatu profesionaletan sartzeko baldintzak hobetzea.

### *Egin beharko den ekintza:*

- laguntza tekniko eta finantza-laguntza ematea adierazpen hauei dagokienez:  
- nazioarteko eta Europako zinema-merkatu nagusiak,  
- nazioarteko eta Europako telebista-merkatu nagusiak,  
- merkatu telematikoak, batez ere, animazio-filmen, dokumentalen, multimedia eta teknologia berrien merkatuak.

### *2. helburu operatiboa eta egin beharreko ekintza:*

- profesionalen zuzendutako katalogo europarren prestaketa eta programa europarren katalogoei buruzko datu-bankuen sorkuntza bultzatu eta babestea.

### *3. helburu operatiboa:*

- Aurreproduktzio- edo produktzio-fasetik sustapenaren babesa bultzatzea.

### *Egin beharko diren ekintzak:*

- Guztiz edo gehienbat europarrak diren programa eta lanen garapenerako, finantzaziorako, koproduktziorako eta banaketarako foroen antolaketan laguntzea,

- ikus-entzunezko eta zinema-programa europarren merkaturatzerako eta merkatu-sustapenerako kanpainak prestatu eta martxan jartzea produktzio fasetik.

4.2. Nazioarteko nahiz Europako publikoarentzat ikus-entzunezko lan europarren eskuragarritasuna hobetzea.

### *Helburu operatiboak eta egin beharko diren ekintzak:*

- ikus-entzunezko jaialdiak animatzea eta babestea programazioan lan europarren ehuneko gehiengoa edo esanguratsua izan dadin,

- lehentasuna eta babesa ematea Estatu Kideetako edo ikus-entzunezko ekoizpen-gaitasun urria duten herrialdeetako lanak sustatzen lagundu, eta kultura-aniztasuna nahiz kulturen arteko elkarriketa bultzatzen duten jaialdiei, baita sortzaile gazte europarren lanei ere.

- jaialdiek antolatutako eta gazteei zuzendutako irudiari buruzko hezkuntzarako ekimenak bultzatu eta babestea, bereziki, eskolekiko eta bestelako instituzioekiko lankidetzaren estuan,

- Estatu Kideekiko eta Batzordearekiko lankidetzaren estuan ikus-entzunezko eta zinema-sorkuntza europarra bultzatzeko sustapen-jarduerak prestatu nahi dituzten profesionalen (bereziki erakusleen), telebista-kate publiko nahiz komertzialen, jaialdien eta instituzio kulturalen ekimenak bultzatu eta babestea.

- hedabideen jarraipen handia duten ekitaldien antolakuntza bultzatu eta babestea, adibidez, sarien banaketa, eta Zinema Europarraren Egunak.

4.3. Filmak sustatzeko erakunde nazionalen eta ikus-entzunezko programen arteko ekintza komunak bultzatzea.

### *Helburu operatiboa:*

- sare europarren sorkuntzan, eta ekintza nahiz proiektu komun europarren koordinazioan laguntzea.

### *Egin beharko diren ekintzak:*

- sustapen-plataforma europarren sorkuntza babestea,  
- merkatu europarretan eta munduan nazio- edo eskualde-mailako sustapena egiten duten koordinazio-erakunde eta taldeak babestea,

- jaialdien sare-lana babestea, bereziki programazioen eta ezagutza teknikoaren elkartrukea,

- helburu berberak, antzekoak edota osagarriak dituzten proiektuen taldekatzea bultzatzea,

- datu-bankuen eta katalogoen sareen sorkuntza babestea.

4.4. Europako ikus-entzunezko eta zinema-ondarea sustatzeko eta eskuragarri egiteko ekintzak bultzatzea.

### *Helburu operatiboa eta egin beharko den ekintza:*



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- Europako ikus-entzunezko eta zinema-ondarea sustatzeko xedea duten ekitaldien antolakuntza bultzatu eta babestea, batez ere publiko gazteari zuzendutakoak.

### **5. Proiektu pilotuak**

*Helburu operatiboa:*

- programa merkatuaren bilakaerari moldatzen zaiola bermatzea, bereziki teknologiaren eta komunikazioaren teknologiak sartu eta erabiltzeari dagokionez.

*Egin beharko diren ekintzak:*

- informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilpenak eragina izan dezakeen esparruetan, proiektu pilotuak babestea,

- jardunbide egokiak hedatzeko konferentziak edo *on line* nahiz *off line* ekitaldiak antolatuz, proiektu pilotuen emaitzei hedatze zabala ematea.

## **II. KAPITULUA**

### **EKINTZEN EXEKUZIO-MODALITATEAK**

#### **1. Erkidegoaren laguntza**

1.1. Lagundutako ekintzetan Erkidegoaren ekarpenak hartuko duen ehunekoa

MEDIAren finantza-ekarpenak ezin izango du lagundutako operazioen kostuen %50 gainditu, jarraian azalduko diren kasuetan izan ezik.

MEDIAren finantza-ekarpenak lagundutako operazioen %60 hartu ahal izango du kasu hauetan:

a) ikus-entzunezko ekoizpen-gaitasun urria edota eremu geografiko edo linguistiko txikia duten herrialde edo eskualdeetan kokatutako prestakuntza-ekintzen kasuan;

b) garapenaren, banaketaren eta hedatzearen kapituluetan aurkeztutako proiektuen kasuetan, Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren baloraziorako interesgarriak direnean;

c) eranskin honen I. kapituluko 3. puntuan (banaketa eta hedatzea) deskribatu, eta 11. artikuluko 2. atalean aurreikusitako prozedurari jarraiki identifikatu diren ekintzetarako.

MEDIA programaren finantza-ekarpenak lagundutako operazioen kostuen %75 hartu ahal izango du Europar Batasunera 2004ko apirilaren 30aren ondoren atxikitako Estatu Kideetan egiten diren prestakuntza-ekintzen kasuan. Programaren tarteko ebaluaziorako oso kontutan hartuko da xedapen hau.

1.2. Erkidegoaren laguntzaren modalitateak

Batzordeak programaren eskuragarritasuna eta exekuzioaren gardentasuna bermatuko ditu.

Erkidegoaren laguntza diru-laguntza edo beka gisa ordainduko da.

Prestakuntzaren arloan, ahal den heinean, funts erabilgarrien zati egoki bat erabili beharko da urtero jarduera berrietarako.

1.3. Proiektuen hautatzea.

Hautaturiko proiektuak hauei lotu beharko zaizkie:

- Erabaki honetako eta eranskineko xedapenei,

- 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko eta 2342/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko xedapenei.

1.4. Baliabideen banakatzea

Funts erabilgarriak jarraibide hauen arabera banakatuko dira:

Gaitasunez jabetzea eta horien hobekuntza, %7 gutxi gorabehera

Garapena, gutxienez %20

Banaketa, gutxienez %55

Sustapena, gutxienez %9

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Proiektu pilotuak, %4 gutxi gorabehera

Alderdi horizontalak, gutxienez %5

Ehuneko horiek adierazgarriak dira eta 11. artikuluko 2. atalean aurreikusitako prozedurari jarraiki alda daitezke.

1. artikuluan ezarritako programaren helburuen eraginkortasun orokorra eta exekuzio egokia bermatze aldera, Erkidegoaren ekintzak 7. kontuan hartuzkoan aipatutako programen barruko ekintzen bideratzean kontzentratu behar dira.

Ekintza guztiak urtero berrikusi beharko dira 10. artikuluko 2. atalean ezarritakoari jarraiki, eta horrela, Batzordeak sektorearen garapenari eta beharrei erantzuteko aukera izango du.

Programaren helburu kultural eta industrial orokorrak bermatze aldera, aurrekontu-zuzkiduraren urteroko banakatzearen erabakia programaren ekintza-ildoan etengabeko jarraipenean oinarrituko da.

### **2. Komunikazioa**

#### **2.1. Batzordea**

Programaren aplikazioa errazteko eta egokia deritzon edozein informazio-, publikazio- edo hedatze-ekintza bideratzeko, Batzordeak mintegiak, solasaldiak edo bilerak antolatu ahal izango ditu, bereziki programaren jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotuta. Ekintza horiek diru-laguntzen bidez edo lizitazio-prozeduren bidez finantzatu ahal izango dira, edo Batzordeak antolatu eta finantzatu ahal izango ditu zuzenean.

#### **2.2. MEDIAren bulegoak eta MEDIAren antenak**

Batzordeak, Estatu Kideekin batera eta zuzenean haiekin lanean, nazio-mailako exekuzio-erakundea izango den MEDIA bulegoen eta MEDIA antenen sare europarra sortuko du, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 54. artikuluko 2. ataleko c) letran eta 3. atalean xedatutakoari jarraiki, eta bereziki helburu hauekin:

- a) ikus-entzunezko sektoreko profesionalak Europar Batasunaren politiken barruan aurki ditzaketen laguntza moduei buruz informatzea;
- b) programaren publizitatea eta sustapena bermatzea;
- c) profesionalen programako ekintzetan ahalik eta gehien parte hartzen dutela ziurtatzea;
- d) proposatutako deialdiei erantzuteko profesionalen haien proiektuak aurkezten laguntzea;
- e) profesionalen, instituzioen eta sareen artean mugaz gaindiko lankidetzak sustatzea;
- f) Estatu Kideei laguntza emateko instituzio desberdinen arteko lotura bermatzeko lanean, Batzordeari babesa ematea, programa honetako ekintzak nazioeko laguntza-neurriekiko osagarriak izan daitezen;
- g) nazioetako ikus-entzunezko merkatuei buruzko datuak alde interesatuen esku jartzea.

### **3. Europako ikus-entzunezko merkatuari, Behatokian parte hartzeari eta Europako Kontseiluaren Eurimages Laguntza Funtzarekin lankidetzak posibleari buruzko informazioa**

Ikus-entzunezko politikaren arloan Erkidegoak dituen tresnen jarraipena egiteko behar diren gastuen oinarri juridikoa da programa.

Programak zehazki aurreikusten du Europar Batasunak Behatokian parte hartzen jarraitzea. Horrek eskuragarriago egingo die operadoreei informazioa eta informazioa sektorean hedatzea, eta halaber, produkzio-prozesua gardenago bihurtuko du. Era berean, programak ahalmena eman ahal izango dio Europar Batasunari Eurimages laguntza-funtzarekin lankidetzan sartzeko aukerak aztertze (finantza- eta administrazio-kontuak kanpo utzita), ikus-entzunezko sektore europarraren lehiakortasuna sustatzeko nazioarteko merkatuan.

### **4. Kudeaketa-lanak**

Programaren diru-zuzkidurak ordain dezake baita ere programaren kudeaketarako eta helburuak betetzeko zuzenean beharrezkoak diren prestakuntza-, jarraipen-, kontrol-, auditoria- eta ebaluazio-ekintzak, batez ere, ikerketak, bilerak, informazio- eta publikazio-ekintzak, informazioaren elkartrukeaz arduratzen diren informatika-sareekin erlazionatutako gastuak, edota Batzordeak programaren kudeaketarako eska dezakeen laguntza administratibo edo teknikorako beste edozein gastu. Kontsulta-talde teknikoetako edo beste hautaketa- eta ebaluazio-prozesuetako adituei behar bezalako ordainsaria eman ahal izango zaie.

Programa exekutatzeko, Batzordeak 1. artikuluan ezarritako helburu eta lehentasunak betetzen direla bermatuko du, baita programako profesionalen parte hartzeak Europako kultura-aniztasuna era orekatuan islatzen duela ere.

### **5. Kontrolak eta auditoriak**

9. artikuluan deskribatutako prozedurari jarraiki hautatutako proiektuentzat, lagin bidezko auditoria-sistema sartuko da.

Diru-laguntza baten onuradun orok Batzordearen eskura izan beharko du ordainketa jaso eta bost urteko epean egindako gastu guztien frogagiriak. Gainera, beharrezkoa denean bere bazkideen edo kideen eskutan dauden frogagiriak Batzordeari helarazten zaizkiola zainduko

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

du.

Batzordeak diru-laguntzaren erabilerari buruzko auditoria egiteko eskubidea izango du, bere agenteen bidez zuzenean, edo berak hautatutako beste kanpo-erakunde gaitu baten bidez. Auditoria horiek hitzarmenak irauten duen bitartean egin ahal izango dira, baita diru-laguntzaren saldoa ordaindu eta bost urteko epean. Dagokionean, Batzordeak funtsak berreskuratzeko erabakia hartzea ekar dezakete auditorien emaitzek.

Aipatutako auditoriak era egokian egite aldera, Batzordeko langileak eta bere kanpo-agintariek sarbide egokia izan behar dute, batez ere, onuradunen bulegoetara eta beharrezko informaziora (formatu elektronikoa dagoena barne).

Kontuen Auzitegiak eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Batzordearen eskubide berberak izango dituzte, bereziki sarbide-eskubideari dagokionez.

Gainera, Europar Erkidegoen finantza-interesak iruzurren eta bestelako irregulartasunen aurka babeste aldera, Batzordeak baimena izango du programa honen esparruan kontrolak eta egiaztapenak *in situ* egiteko, Europar Erkidegoen finantza-interesak iruzurren eta irregulartasunen aurka babesteko Batzordeak *in situ* egiten dituen kontrol eta egiaztapenei buruzko Kontseiluaren 2185/96 (EE, Euratom) Erregelamenduari (1996ko azaroaren 11koa) jarraiki (1). Dagokionean, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egingo ditu ikerketak, eta Europako Parlamentuaren eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egiten dituen ikerketei buruzko Kontseiluaren 1073/1999 (EE) Erregelamenduari (1999ko maiatzaren 25koa) lotuko zaizkio. (2).